

Euskal Herriko literatura Interneteko atari batez baliatu da mugak gainditzeko

'WWW.BASQUELITERATURE.COM' WEBGUNEAK MODU "XUME" BATEAN AZALDUKO DITU EDUKIAK

Estatu Batuetako, Frantziako, Erresuma Batuko edo Poloniako unibertsitateetan euskal literatura iraskasten da

CRISTINA TAPIA

DONOSTIA. Euskal literaturak gero eta garrantzi handiagoa dauka mundu osoan. Duela urte batzuk kanpoko liburuak itzultzen ziren euskarara, orain, berriz, Bernardo Atxaga, Aingeru Epaltza, Joan Mari Irigoien edota Ixiar Rozasen kontakizunak ingelesez edo frantsesez aurki daitezke.

Honetaz gain, nazioarteko literatura foruetan adituek beti galdetu izan dute Euskal Herriko produktioari buruz.

Egoera berri honen erantzuna atzo aurkeztu zen: 'www.basqueliterature.com'. Gipuzkoako Foru Aldundiako dirulaguntzekin sortu eta Euskal Herriko Unibertsitateko Mari Jose Olaziregik zuzenduko duen webgunea da.

Lau hizkuntzatan idatzita dago: euskaraz, frantsesez, ingelesez eta gaztelaniaz, "kanpoaldera begira egin dugulako, zorionez, gero eta gauza gehiago itzultzen dira euskaratik eta eskaera badago atzerrian, gure idazleak hor barna badabiltzalako.", adierazi zuen Olaziregik aurkezpenean.

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte (EIZIE) lehendakari Joseba Osak azaldu zuenez, "proiektu honekin garbi

ikus dezakegu gero eta gehiago Euskal Herrikan kanporako lana egiten dugula, euskaratik beste hizkuntzataratuak itzultzen eta munduari euskal literaturaren berri ematen".

Badirudi euskara modan dagoela eta gero eta unibertsitate atzerriar gehiago irakasten dute euskal literatura. Besteak beste, Estatu Batuetako University of Nevada, Erresuma Batuko University of Birmingham, Frantziako Université Michel de Montaigne Bordeaux 3 edo Poloniako Adam Mickiewicz. EHUko Mari Jose Olaziregik adierazi zuenez, "kanpoko begira egin da ataria, euskal literaturara hurbildu nahi duen editore, itzultzaile, ikerlari eta irakurle orori begira".

Euskal literaturari buruz existitzen den informazioa gehienetan euskaraz dago edota euskalduntzat egina, "kanpotarrak datu gehiago lortu nahi ditu modu ulergarri batean eta 20 atari eman beharrean webgune hau arazo horren erantzuna bihurtu nahi du", esan zuen Olaziregik. Bestalde, eta webgunearen zuzendariaren esanetan, "atari honek sarean dagoena ez du errepikatu nahi, baizik eta modu xume batean azaldu".

TXUKUNTASUNA ETA ADITUAK Webgunearen diseinua CodeSyntax empresari enkargatu zitzaion eta bertako arduradunaden, Luis Fernandez hitzetan, "diseinu oso simple baten errudunak gara, gure asmoa gauzak txukun jartzea izan delako eta ondo funtzionatzen bal-

Gero eta gauza gehiago itzultzen dira euskaratik eta atzerrian jakin-mina handia dago



Eskerretik eskuinera Olaziregi, Jaka eta Osa. FOTO: KARLOS CORBELLA

din badu gauzak ongi egin ditugunaren seinale izango da".

Bertan bost atal nagusi daude: *Sarrera, Literatura, Katalogoak, Loturak* eta *Albistek*.

Literatura atalean, adibidez, euskal literaturari buruzko argibide orokorrak aurki daitezke: euskal liburuaren merkatua, euskal literaturaren historiaren oharra, ahozko literatura, klasikoa, XX. mendekoa edo haur literatura. Atal

honen ardura aditu talde batek dauka eta bertannabarmentzekoak dira: Jesús María Lasagabaster, Deustuko Unibertsitateko Irakasle Emeritua, EHUko Joxerra Garzia edo Jean Haritschelhar - Euskaltzainburu-ohia, Bordeleko Unibertsitateko Katedraduna.

Beraz, euskal literaturari buruz jakin nahi izanez gero, www.basqueliterature.com klikatu besterik ez da egin behar.

KRITIKA > LITERATURA

Kalez kale, gorriak ikusten

KALE GORRIAN

Izenburua. Kale gorrian. Jatorrizko izenburua. Cold Stone. Egilea. Robert Swindells. Itzultzailea. Iñaki Mendiguren. Elkar - Izu taupadak. 2005.

INMA ERREA

CHARLES Dickensek bere nobelen jokaleku hartutako Londres bera da Robert Swindellsen eleberrin honen kokagunea, izen bereko hiriburua, alegia, baina, iraultza industrialaren lehen garaian beharrean, mende bat pasa eta gero gaur egungo Londres hiriburu erraldoia dugu honako hau.

Haien distira guztiarekin agertzen zaizkigu Londresearaino joan ohi den edozein turistak ongi gogoan dituen kale eta etorbideak, merkatu, plaza eta geltokiak. Baina, toki horietan guztietan Swindells nabarmentzen dizkigutenak ez dira bizimodu eroso samarreko turistak, ezta londrestar arruntak ere -aberats-aberatsak izan gabe diru poxi bat, lanpostu bat, etxe bat eta, ausaz, familia bat dituztenak- baizik eta ia ikusgaitz izanda ere herritar arruntan artean enbarazu egiten dabilten gazte homelessak, etxegabeak, arloreak, pobreak. Dickens garaian beza-

la, kasik. Edo, apika, okerrago.

Kale gorrian sortu duen idazleak, Roberts Swindells, ongi ezagutzen baitu deskribatzen digun giroa, erakusten digun errealitatea. Idazle baino lehen, 15 urterekin eskola utzi eta ogibide frankotan jardun zuen. Liburua idatzi aurretik hiru aste eman zituen kale gorrian, eta denbora horretan hartutako eskarmentua hartu zuen oinarri Link protagonistaren eta bere lagun ibiliak irudikatzen.

Nobelak irakurketa bat baino gehiago ditu, norabide anitz eta kontrajarrietakoak. Haien etxeetan bizimodu hagitxer osoa daramaten gazteei zuzendua denez, hots, haien kezka nagusien artean asperdurari aurre egitea edo joko elektronik berriena eskuratzea dituzten neska-mutikoei, idazleak beldurrezko nobela eskaintzen du, istorio beltza, gaztetxoek maite duten abentura puntuari ederki heltzen diona.

Baina izu taupada klasikoak pizteko gauza den kontakizunean zangalatrau kritika sozial zorrotz eta mikatza dakarkigu egileak: intrigarekin txirikordaturik iristen baitzaizkigu liberalismo ekonomikoak ekarritako desegituraketa sozialaren edo arrazismoa bidaide dara-

man militarismoaren oihartzunak, ongizate estatuaren porrotaren isla, gizarte honetako miseria, non luxua eta pobrezia kale beretik baitoaz, elkarren ondoan, baina elkarri ukitu gabe.

Bukaera ere gaur-gaurkoa da, hau da, gezamina. Intriga argituta ere, irakurlea ez baita erabat lasai geldituko. Gaitza ez baita, soilik, gaizkilearengan. Gaitza gure artean baitago, gure baitan, gizarte honen individualismo zoroan. Badirudi idazleak ohar egiten die la irakurle gazteei, edozein adinetako irakurleei; badirudi kasu emateko ohartaraztea duela xede, kasu, gizarte ero honetan gutako edonor pasa baitaiteke goizetik gauera kale gorri. Hortik aldentzen da Dickensengandik, horretan da nabari mende bat pasa dela, eta batek daki zenbat iraultza, eta horiek guztiak ikusita esperantza ez da jada pobraenen bizkar-zorroetan.

Trebetasun handiz harilkatutako nobela honek intrigazko korapiloan murgilduko ditu irakurleak, eta aldi berean zer pentsatu emanen die. Ez da gutxi, garai hauetan, eta are aukera hobea da Harry Potterren itzultzailearen eskutik euskara eroso ederrean badatorkigu.

Blogak euskaraz sortzeko tresna berria kaleratu du blogari.net-ek

GERO ETA ZALE GEHIAGO DITUEN KOMUNIKAZIO TRESNA HAU, AUTOMATIKOKI ETA MINUTU GUTXITAN SOR DAITEKE

IRUÑEA. Software librearen formazio eta garapenerako Elurnet enpresak www.blogari.net internet-ataria kaleratu berri du interneteko euskal erabiltzaileek beren ideiak euskaraz azaltzeko txokoak edo blog-ak sortzeko tresna dena, ekimenaren arduradunek adierazi dutenez.

"Blogak informazioa era erraz eta azkarrean zabaltzeko nahi dutenentzako komunikazio tresna bat da", Elurneteko arduradunak, Susi Rodriguezek.

Ekimen hau "teknologia berriak gero eta gehiago sartzen ari direla gure bizitzetan eta jendeak beren egonezinei irteera emateko gauza gehiago eskatzen" dituen sinismen datzala erran du Rodriguezek.

Proiektuko arduraduna den Gorka Juliorekin hitzetan, tresnaren harre- ra "oso ona" izan dela jakinarazi du,

"orainarte ia 90 blog sortu baitira, eta sortzaileak tankera guztiko erabiltzaileak dira, irakasleak, ikasleak edo elkarteak".

Era berean, blogari.net-en erabileraz aldatzeko orduan, blogak bai sortu lehenik eta gero kudeatzeko pausuak nabarmendu ditu Julioi, baita bilaketak edo artxiboa bezalako zerbitzu bereziak ere. Orainarte existitzen ziren blog komunitateekin alderatuz, "aldea blogari ez dela baimenik eskatu behar blogak sortzeko da, dena automatikoki eta minutu gutxitan egiten da eta gero aplikazio ezberdinak erabiltzen ditugu", erran du Gorka Julioi.

Euskarazko blogak sustatzen dituen tresna honetako gaiak oso desberdinak dira beraien artean, gehienak blog pertsonalak izanik: egunerokoak, bertsoak, abestiak, unibertsitateak edota aldarrikapenak ere. Aukera informatikoei dago kienez, RSS formatuko fitxategiak, bere bertsio desberdinetan, elkarriketarako mantentzeko beste web-erabiltzaileekin edota podcasting-a (irritati-saioen garapena) nabarmentzen dira. >D.N.